

Pedagogía Sistemikoa

Formakuntza euskaraz Bergaran eta Donostian

Mexikoko Dr. Emilio Cárdenas (CUDEC) unibertsitatearekin hitzarmenean



1 maila. OINARRIAK
2020 (7 modulu)



2. maila. DIPLOMA
CUDEC unibertsitateak egiaztatuta
2021 (7 modulu).



3. maila. Graduondoko MASTEROFIZIALA
Alde teorikoa "on line" plataforman, eta
Esperientziala CUDEC unibertsitatean



PEDAGOGIA SISTEMIKOA

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, alderdi kognitiboak ezezik, pertsonarteko harremanak, komunikazioak, eta emozioak lekua egitea beharrezkoa zaigu gaur egun. Pedagogia Sistemikoa bateko eta beste korrante pedagogikoen esandakoak integratu eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan alderdi sistemikoki lekua egiteko helburuz sortu zen.

Ikuspegi sistemikoki pertsona bakoitzaren sustraiak, nortasuna eta jatorria kontuan hartzen ditu, kontestua aintzakotzat hartuz, bakoitzak bere tokia izan dezan eta izan dezagun sisteman, eta ikasleak bere ahalmenak garatu ditzan gure presentzia eta laguntzaren bitartez.

Gauza jakina da gauegun familia eta kultura aniztasun handia dugula jendartearen eta, beraz, baita eskolan ere. Aniztasun hori aberastasun iturri da eskolarentzat, eta eskola-sistema are konplexuagoa ere bada horren eraginez. Gauzak horrela, irakasleok familia eta kultura aniztasun horri dagokion lekua egin ahal izateko erraminta eta estrategiak behar ditugu, familia-sistema kontuan hartuko duten erraminta eta estrategiak. Bada, horretara dator, hain zuzen, Pedagogia Sistemikoa.

Bert Hellinger-ek familia eta giza harremanen inguruan egindako ekarpenak hezkuntza esparruan paradigma berri baterako aukera ematen du. Paradigma berri horrek hezkuntza errealitatea begirada zabalago batez ikustea ahalbidetzen digu. Begirada zabalagoa izateak familia-sistema, eskola-sistema, jendarte-sistema, kultura-sistema... kontuan hartzea eskatzen du.


Bide honetatik, CUDEC unibertsitate mexikarrak pedagogia planteamendu berritzaile honen barnean azken hamarkadan garatu duen esperientziatik abiatuta, behin eta berriz ikus dezakegu ikasleek bizi dituzten ikaskuntza-zailtasun gehienek jatorri sistemikoki dutela; eta beraz, ikasleek ikaskuntza-prozesua oztopatzen duten zailtasun horiek bideratzen laguntzea da, hain zuzen, Pedagogia Sistemikoen lehen helburu nagusia.

Eskola eta familiaren arteko elkarlana beraz, ezinbestekoa da. Are gehiago, ikasleek ikaskuntza-prozesua arrakastatsua izango bada, bi sistema horiek elkarrekin aritu behar dute; hau da, eskola-sisteman, familiari dagokion lekua egin behar zaio eta, familia-sisteman ere berdina egin behar da eskolarekin. Pedagogia Sistemikoki hezkuntza testu ingurua harreman-sare erraldoi baten gisan ikustea ahalbidetzen digu (irakasle-ikasle, irakasle-guraso, irakasle-irakasle, seme-alaba/guraso...). Testu ingurua beturreko berri horien bidez ikusita baino ez gara konturatuko, ikasleek euren ikaskuntza-prozesua arrakastatsua izan dadin ezinbesteko baldintza dela familia-sistema eta eskola-sistema ordenatuta egotea eta elkarrekiko erabateko errespetuz eta konfiantzaz jardutea. Ze, zalantzarik gabe, seme-alaba edo ikasleak eskuz esku behar gaitu.

Formazioaren helburua

Formakuntza honen helburua Pedagogia Sistemikoki hezkuntza komunitateari eskaintzen dizkion baliabideak eta aukera berrietan trebatzean datza. Ikuspegi sistemikoki bitartez, eskola eta familiaren arteko ordenak landuko ditugu, ikaslearen inguruan sortzen diren dinamika aztertuz, bere ongizaterako eta ikaskuntza prozesurako oinarriak sendotuz.

Familia eta eskolaren arteko zubiak eraikitze baliabideak landuko ditugu, bakoitzak (irakasle, ikasle, guraso, ...) gure tokia izan dezagun irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.





Hartzaileak

Irakasleak, hezitzaileak, pedagogoak, aholkulariak, orientatzaileak, terapeutak, formatzaileen formatzaileak, eskoletako zuzendaritza-taldeetako kideak, gurasoak... Oro har, hezkuntza munduarekin harremana duen edozeinentzat da egokia formazio hau.

Edukiak

Ikastaroa guztiz praktikoa izango da. Ondoren zehazten diren gaiak landuko dira eta parte hartzaileen esperientziatik sortutako gaiak eta egoerak ere aztertuko ditugu. Bert Hellinger-ek garatutako oinarrietatik abiatuta, hainbat egoera ulertzeko gai izango gara, ikuspegi sistemikoan sakonduz eta egoerak bideratzeko baliagarriak diren tresnen erabileran trebatuz. Hau guztia partehartzaileen lan pertsonalean ere oinarrituko da.

Gaiak:

- Hezkuntza testu inguru sistemikoa: familia eta eskola sistemen azterketa.
- Sistemen arteko loturak eta erlazioa
- Familia, ikaskuntzarako lehen iturria: maitasuna, loturak, baloreak, mugak, sinesmenak, ...
- Pedagogio sistemikoaren profila: testuingurua eta dagokion lekua.
- Belaunaldien gaineko begirada sistemikoa:
 - Dimensio transgenerazioanala (sustraiak eta ni).
 - Dimensio intergenerazionala (gurasoak eta ni).
 - Dimensio intragenerazionala (berdinkideak eta ni).
- Komunikazioaren eta sistemaren teoria.
- Harremanak eta loturak eskola-sisteman: Bert Hellinger-en ikuspegia eta oinarri eraikitzaileak.
- Konplexutasuna aintzat hartuz hezi.
- Genograma: norbere historia lantzeko erraminta metodologikoa.
- Norbere historiaren eta lantokian ditugun harremanen arteko lotura.
- Hezkuntza-komunitate guztiari begirako dinamika sistemikoak.
- Eskolen historia sistemikoa: ordena eta harremanak.
- Eskola antolaketa
- Konpetentzia sistemikoak: aurkikuntza bidezko ikaskuntzaren, ikerketaren eta ekintzaren azterketa eta bilakaera.
- Hezkuntza esparruko gatazken antzematea eta dagozkien eskuhartzea.
- Ikaskuntza zailtasunek, kasu bakoitzean adierazten duten sakoneko dinamika.
- Mugimendu sistemikoak, zailtasunak bideratzen laguntzeko baliabidea.
- Sintonia korporal, emozional eta kognitiboaren garrantzia.
- Gainerakoei hazten eta garatzen lagundu ahal izateko, norbera indartzea.
- Kide garen sistemarekiko leialtasuna abiapuntu hartuta, norbere bokazioarekin eta proiektu pertsonalei aurre egin ahal izateko behar den indarrarekin konektatzea.
- Dagokigun lekuan kokatu eta betetasunez bizitzea.





Titulazioa

Formakuntza 300 ordukoa izango da guztira, bi mailatan osatua: lehen 100 ordu presentzialak eta 50 ordu lan bideratuekin osatuko da, eta bigarrena beste horrenbesterekin.

1.Maila. Oinarriak

Lehen urtean Pedagogia Sistemikoaren oinarriak landuko ditugu, ikuspegi sistemikotik abiatuta eskolan sortzen diren dinamikak ulertu eta bideratzeko modu integratzaileak landuz.

2.Maila. Sakontzea

Bigarren urtean, Pedagogia Sistemikoak eskaintzen dituen tresna eta baliabideetan trebatuko gara, mugimendu sistemikoen bitartez bai ikasleek eta baita irakasle, guraso eta beste eragileek bakoitzak dagokigun tokia hartu dezagun hezkuntza komunitatean eta ikaslearen ikaskuntza prozesuan.

Bigarren maila burutzean Mexikoko Dr. Emilio Cárdenas (CUDEC) unibertsitateak "Diploma Universitario en Pedagogía Sistémica" egiaztatzea luzatuko die formazio guztia burutu dutenei.

3.Masterra.Graduondoko MASTER OFIZIALA Pedagogian

Aurreko bi mailak egiteak aukera emango du Master titulazio ofizialerako formakuntzan parte hartzeko (gradoa dutenezat). Masterra honela osatuko da:

- 1.Alde praktikoa eta esperientziala CUDEC unibertsitatean bertan udaran egingo den ikastaro presentzialarekin (uztailak 16tik abuztuak 10era).
2. Alde teorikoa, ON LINE plataformaren bitartez (bi ikasturtetan zehar).

Guztiarekin, Dr.Emilio Cárdenas unibertsitatearen "Master en Pedagogía Sistémica" titulazio ofiziala eskuratuko da.



(1. Maila 2020)

- 1. Pedagogia Sistemikoaren Oinarriak. Eskola Sistema eta Familia Sistema, "Zubiak eraikiz".**
Iñaki Arana eta Saionara Barrena (Euskal Herria). Urtarrilaren 24 eta 25.
- 2. Pedagogia Sistemikoak eskeintzen digun begirada eta baliabideak.**
Iratxe Vazquez (Euskal Herria). Otsailaren 28 eta 29.
- 3. Mugak, askatasuna eta afektua.**
Angélica Malpica (Mexiko). Martxoaren 27, 28 eta 29.
- 4. Ikuspegi berritzailea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Bert Hellinger-en filosofia eta aportazioak.**
Angélica Olvera (Mexiko). Maiatzaren 29, 30 eta 31.
- 5. Jolasa eta psikomotritzitatea ikuspegi sistemikoa aintzat hartuz.**
Amparo La Moneda (Zaragoza). Irailaren 25 eta 26.
- 6. Eskolan gertatzen diren gatazkak antzematen eta bideratzen.**
Saionara Barrena (Euskal Herria). Urriaren 23 eta 24.
- 7. Bokazioa eta barne indarrarekiko konexioa gure proiektu pertsonalak eta profesionalak bideratzeko. (Residentziala, elkarbizitzan).**
Miren Arzak eta Iñaki Arana (Euskal Herria). Azaroaren 20, 21 eta 22.

Hauetako saio batzuk irekiak izango dira, partehartze zabalagoarekin.


Trebatze saioak. Modulu bakoitzaren ondoren, trebatze saio bat izango dugu. Helburua aurreko moduluan landutakoa finkatzea, eskolako ihardueran sortzen zaizkigun egoera konkretuak lantzea eta zenbait tresnen erabileran trebatzea izango da. Saio hauek aste barruan izango dira, 17:30etatik 20:30etara.

(2. Maila 2021)

- 1. Pedagogia Sistemikoaren aplikazioa tresna bisualak baliatuz. Marrazkiak eta irudiak.**
Jose Carlos Pascual (Madril). Urtarrilean.
- 2. Irakaslearen presentzia indartuz.**
Saionara Barrena (Euskal Herria). Otsailan.
- 3. Konpetentzia Sistemikoak eta ikaskuntza talentuaren koloreak.**
Angélica Malpica (CUDEC, Mexiko). Martxoan.
- 4. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ikuspegi sistemikotik abiatuta.**
Angélica Olvera (Mexiko). Maiatzan.
- 5. Gorputza, gure egoera emozional eta sistemikoaren adierazle.**
Miren Arzak (Euskal Herria). Irailan.
- 6. Hezkuntza Proiektua, ikuspegi sistemikoa Curriculumaren arlo ezberdinetan.**
Jose Antonio Garcia Trabajo (Leon). Urrian.
- 7. Hezitzaile Sistemikoa. Norberaren indarretik lagunduz eta irakatsiz.**
Miren Arzak eta Iñaki Arana (Euskal Herria). Azaroan.

Programa honetan aldaketaren bat gertatu liteke formakuntzaren garapenerako beharrezkoa ikusiko balitz.
2. mailako datak, 2021. urterako, aurrerago zehaztuko dira.





ANGELICA OLVERA (Mexiko). Dr. Emilio Cárdenas (CUDEC) unibertsitate mexikarreko zuzendari korporatiboa, Pedagogia Sistemikoaren sortzailea da. Mexiko, Argentina, Kolonbia, Dominikar Errepublika, Venezuela eta Espainian zabaldu du ikuspegi pedagogiko hau. Zenbait liburu idatzi ditu, hauen artean: "Raíces, vínculos y alas", "Inteligencia Transgeneracional. Sanando las heridas del pasado", "El éxito es tu historia. Pedagogía del siglo XXI", "Sintonizando las miradas", "Pedagogía Sistémica CUDEC".



IÑAKI ARANA OREGI (Euskal Herria). Aholkulari sistemikoa. Psikologian eta Enpresa Zientzian lizentziatua (Dr. Emilio Cárdenas unibertsitatean eta Euskal Herriko unibertsitatean batzbestek). Familia konstelazioetan eta kudeaketa sistemikoan aditua izanik, esperientzia luzea du taldeak gidatzen. CUDEC Pedagogia Sistemikoa Formakuntzaren zuzendaria da Euskal Herrian.



MIREN ARZAK VESGA (Euskal Herria). Osteopatian espezializatua (Lyon eta Aix-en-Provence-eko eskolatan), aurretik Fisioterapian diplomatu zen Valentziako unibertsitatean. Mexikoko Dr. Emilio Cárdenas unibertsitateko DOMUS irakasle taldeko partaidea da. Osteopatiako ikastaro trinkoak eskaintzen ditu eta "¿Dónde retengo mi vida?. La Osteopatía y la mirada sistémica" liburuaren egilea da.



SAIONARA BARRENA VILLA. (Euskal Herria). Lehen Hezkuntzako irakaslea, azken urteetan ikasleen arteko gatazken bideratze eta kudeatze prozesuan ikertu eta sakondu du. Ikuspegi sistemikoak eskolari eskaintzen dion begirada zabal eta aberasgarria bizi ahal izan du tutore moduan, eta gaur egun, CUDEC Pedagogia Sistemikoa Formakuntzaren koordinatzailea da Euskal Herrian.



IRATXE VAZQUEZ CECIAGA (Euskal Herria). Haur Hezkuntzako irakaslea. Azken urteetan aholkulari lanetan aritu ondoren Haur eta Lehen Hezkuntzan, gaur egun, zuzendari lanetan ari da. Pedagogia Sistemikoan diplomatua da eta CUDEC Pedagogia Sistemikoa Formakuntzaren kolaboratzailea da Euskal Herrian.




AMPARO LA MONEDA (Zaragoza). Irakasle eta psikomotrizista, esperientzialuzea du irakasle eta psikomotrizista moduan. Pedagogia sistemikoan eta Genogramaren azterketan espezializatu da. Psikologian lizentziatua (Dr. Emilio Cárdenas unibertsitatean), "Vivir, sobrevivir" (CUDEC edit.) liburuaren egilea da.



JOSE ANTONIO GARCÍA TRABAJO (Leon). Lehen hezkuntzako irakaslea eta musika hezkuntzan espezializista da. Psikologian lizentziatua (Dr. Emilio Cárdenas unibertsitatean), urteak egin ditu eskolako zuzendari lanetan. Hainbat herrialdetan ari dar gaur egun Pedagogia Sistemikoaren aplikazioan duen esperientzia partekatzen.



MARÍA JESUS RODRIGUEZ (Leon). Psikologian lizentziatua (Dr. Emilio Cárdenas unibertsitatean), Konstelazio familiarrak gidatzen ditu eta Laguntza familiarrerako programak zuzentzen ditu. Pedagogia sistemikoari buruzko tailerrak eta mintegiak ematen ditu hainbat ikastetxeetan.



JOSE CARLOS PASCUAL (Madrid). Irakaslea Bigarren Hezkuntzan, Arte Ederretan eta Psikologian lizentziatua da, eta Pedagogia Sistemikoan eta Konstelazio Familiarretan espezializatu da. Hainbat artikulu idatzi eta publikatu ditu Pedagogia Sistemikoaren inguruan eta irakasleentzako ikastaroak ere ematen ditu.



ANGÉLICA MALPICA OLVERA (Mexiko). Hezkuntza Zientzian lizentziatua da, Psikopedagogia espezialitatean. Dr. Emilio Cárdenas unibertsitateko eta CUDEC Taldeko zuzendari orokorra da gaur egun eta esperientzia handia du Pedagogia Sistemikoaren aplikazioan, aportunazio handiak egin dituelarik bere garapenerako. Ikerlaria, "Los colores del Talento" liburuaren egilea da eta hainbat herrialdetan ari da bideratzen eta zabalitzen bere esperientzia.



Prezioa

Lehen mailaren prezioa, guztira, 1420€ da.

160€ matrikula egiterakoan ordaindu beharko dira, eta gainontzekoa hiru epetan: urtarileko lehen asterako (420€), apirilko lehen asterako (420€) eta uztailko lehen asterako (420€).

Bigarren mailaren prezioa, guztira, 1380€ da. 120€ matrikularekin eta gainontzekoa hiru epetan egin ahal izango da baita ere (lehen urteko epe bereak). Ordainketak egiteko, hona hemen kontu zenbakia:

KUTXABANK ES 04 2095 5039 90 9113635729

Erresidentzialari dagokion ostatu-kostea ez dago ikastaroaren prezioaren barne, beraz, parte hartzaile bakoitzak ordainduko du egonaldian bertan.

Tokia

Bergaran eta Donostian.

Saio osagarriak (aste barrukoak) Bergaran, Donostian edota Iruñian egiteko aukera izango da, eta partehartzaile bakoitzak aukeratuko du non egin, bere beharraren arabera.

Ordutegia

Ostirala arratsaldez, 17,30etatik 20,30etara. Larunbata 10,00etatik 14,00etara eta 16,00etatik 20,30etara. 3, 4 eta 7 saioek igande goiza ere, 10,00etatik 14,00etara.

Hizkuntza

Formakuntza euskaraz izango da, eta landu beharreko gaiak eta proiektuak euskaraz aurkeztuko dira orokorrean.

Formakuntza honetan hainbat herrialdeko esperientziak ezagutu ahal izango ditugu, eta pedagogia sistemikoaren aplikazioan esperientzia luzea eta sakona duten irakasleak izango ditugu formadore eta aurkezle. Saio hauek gazteleraz izango dira formadoreen partetik.

Saio osagarriak

Asteburuko modulu bakoitzaren ondoren, saio osagarri bat izango dugu. Helburua eskolako ihardueran sortzen zaizkigun egoera konkretuak lantzea eta zenbait tresnen erabileran trebatzea izango da.

Saio hauek aste barruan izango dira, 17:30etatik 20:30etara, eta irekiak izango dira (hau da, formakuntzan parte hartuko duten pertsonekin batera, interesa duten beste pertsona batzuei ere parte hartzeko aukera eskeinitako zaie).

IZEN EMATEA

Telefona : 630 97 68 13
beginradasistemikoa@gmail.com
www.iaranasistemak.com

